



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	2.314
Zabalera:	424,13 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Pirinioak (ikus mapa)
Udalerriak:	Abaurreagaina/Abaurrea Alta, Abaurrepea/Abaurrea Baja, Aria, Aribe, Auritz/Burguete, Erro, Garaioa, Garralda, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga/Roncesvalles, Luzaide/Valcarlos, Hiriberri/Villanueva de Aezkoa

2. Komunitatea eta osasuna

Nafarroako osasun eskualde oinarrizkoen artean, Aurizkoa da biztanleria txikiena eta zabalera handiena dutenetarikoa. Bertako biztanleriaren piramideak erraboi itxura du; 40tik 75 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, eta maskulinizatua ageri da tarteko adinetan. Aztertutako epean ez zen jaioberririk izan 14tik 19 urte bitarteko amarik zuenik. Aurizko eskualde oinarrizkoa da zahartzaroko mendekotasun indize handiena (%49,9), jaiotza tasa txikiena (‰4,6) eta muturreko pobrezia arrisku tasa txikiena (%4,8) dituztenetarik.

Aurizkoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, emakumezkoen (%15,3) eta gizonezkoen (%7,7) antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez, diabetikoen prebalentziari dagokionez (%5,1) eta urteko kontrol erregistratua duten hipertentsiodunen portzentajeari dagokionez (%71,5). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago, emakumezko jaioberrien bizi itzaropenari dagokionez (85,5 urte).

Nafarroa2000 zonifikazioan Aurizko eskualde oinarrizkoa Pirinioetako eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Pirinioei dagozkien adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik atereak. Pirinioetako eskualde honetan, mendebaldeari loturik gazteriarri dagozkion adierazleak kalkulatzeko, emaitzarik hoberenak agertzen dira gazteen sedentarismoari dagokionez (%16,0) eta gazteen eguneroko tabako kontsumoari dagokionez (%19,6). Kontrara, eskualdeko emaitzak okerrenak dira gazteen alkohol kontsumo intentsiboari dagokionez (%45,1).

3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[-> Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierzle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrikoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.

Grupo	Indicador	Periodo	Nº casos		Valor		Media		Mejor
			Zona	Zona	Zona	Navarra	Peor		
Faktore soziodemografikoak	1. Jaiotza tasa	2015	11	4,6	9,4	3,7		27,0	
	2. 14-19 urteko ama duten jaioberriak	2011-2015	0	0,0	5,4	16,7		0,0	
	3. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak #	2011	49	7,8	9,2	15,7		6,7	
	4. Langabezia tasa #	2016	-	9,6	12,5	14,5		7,9	
	5. Muturreko pobreziaaren arriskuaren tasa	2015	-	4,8	8,8	16,6		4,7	
	6. Zahartzaroko mendekotasun indizea	2016	715	49,9	29,5	63,9		2,7	
	7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak	2016	-	34,0	39,0	49,1		15,8	
	8. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak	2016	-	17,5	19,1	35,1		10,3	
Bizimoduak	9. Partez edo guztiz amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko	2015	8	62,5	61,2	44,4		80,0	
	10. Sedentarisinoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	22	16,0	20,2	27,5		16,0	
	11. Alkoholen kontsumo intentsiboa gazteetan (14-29 urte) #	2013	69	45,1	37,8	45,1		28,2	
	12. Tabakoaren kontsumoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	30	19,6	22,6	28,4		19,6	
	13. Tabakoaren eguneroko kontsumoa #	2012	15	19,4	20,5	25,0		19,2	
	14. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa emakumezkoetan	2016	196	15,3	17,7	21,9		11,7	
	15. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa gizonezkoetan	2016	104	7,7	8,6	12,5		7,3	
Gaixotze-tasa	16. Haurren obesitatearen prebalentzia (0-5 urte)	2015	13	4,1	4,3	8,7		2,0	
	17. Diabetesa diagnostikaturiko pertsonen prebalentzia	2017	123	5,1 *	7,1	9,0		4,6	
Osasun Sistema	18. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak	2016	86	66,2	67,8	47,4		94,2	
	19. TA-ren neurketa duten hipertentsioak	2016	284	71,5 *	65,4	49,9		90,7	
Heriotza-tasa	20. Emakumezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	85,5	86,2	83,6		87,6	
	21. Gizonezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	80,3	80,1	78,0		84,1	



Adierazleen iturria: 1-2: Bizit. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizit. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Eremu hauetako adierazleak: Pirinoak (3, 4 eta 13) edo Ipar-mendebaldea + Pirinioak (10 - 12), Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batera egiten ez duten 14 – 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (T. gordina: emakumezkoak 21,7 eta gizonezkoak 10,3); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score ≥ +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 7,5); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatzen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.